

BERANGO ANTZOKIKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

1.- ARETOAREN IREKIERA:

Emanaldia hasi baino 15 minutu lehenagotik egongo da aretoa zabalik eta erabilgarri, horrela ez egiteko arrazoitutako ziorik ez bada.

2.- SARRERAK EMATEKO ORDUTEGIAK:

- Sarrerak astelehenetik ostiralera emango dira, Kultur Etxe bietan:

- **Berangoeta:** astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara.
- **Santa Ana:** astelehenetik ostegunera 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:00etara. Ostiraletan 11:30etatik 13:30etara.

- Astelehenetik asteazkenera udalerrian erroldatuta daudenentzako sarrerak emango dira. Horretarako NANA aurkeztu beharko da. Ostegunetik aurrera, beste guztientzako sarrerak emango dira.

3.- SARRERAK EMATEKO ARAUAK:

- Programatutako emanaldia hasi eta berehala ez da sarrera gehiagorik emango. Emanaldia hasi ostean, ez da inolaz ere sarrerarik emango. Emanaldia hasi baino lehen (zine, antzerkia, dantza, etab.), kortesiazko itzarote-denbora 5 minutukoa izango da. Behin hasi eta gero ez da sartzeko baimenik emango.
- Aste horretako emanaldiei dagozkien sarrerak baino ez dira emango.
- Gehienez ere 4 sarrera eman ahal izango dira pertsona bakoitzeko.
- Ezin izango da erreserbarik egin.
- Emanaldiaren eguneko sarrerak baino ez dira emango Antzokian. Emanaldia hasi baino ordu eta erdi lehenago hasiko da sarreren banaketa Antzokian.

4.- SARRERAK ITZULTZEA:

- Antzokiarenak ez diren arrazoiengatik emanaldia edo jarduera bertan behera uzten bada, Antzokian bertan erositako sarreren dirua itzuliko da egun horretan.
- Diru nahikoa egonez gero, Antzokian bertan itzuliko da dirua; bestela, hurrengo egunetan Antzokitik pasatzeko esango zaie erabiltzaileei, itzultzeko modua zehazteko.
- Joaterik ez duenari ez zaio, inolaz ere, sarreren dirua itzuliko.

5.- SARRERA:

- 8 urtetik beherako umeek helduek lagunduta joan behar dute; bestela, ez zaie sartzeko baimenik emango, inolaz ere.
- Pelikulak adinen arabera sailkatuko dira. Datu hori ikusgai egongo da, emanaldiak adin guztientzat ez direnean. Adin hori ez dutenak sartzen badira,

ume horiekin doazen helduen erantzukizuna izango da (heldu horiek gurasoak edo legezko tutoreak badira). Hori guztia argi utziko da Auditorioaren sarreran.

6.- BESTELAKOAK:

Instalazioak modu egokian erabiliko direla gainbegiratuko da, nahitaez, gogoraturaz ezin dela erre, jan edo edan aretoaren barruan; kasu horretan, jarrera ez dela egokia jakinaraziko zaie erabiltzaileei. Jarrera horri eutsiz gero, aretorik irteteko esango zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako agindu guztien kontra egiten duten edo kontrakoa esaten duten xedapen guztiak indargabetu egiten dira.

Araudi honetan aurreikusita ez dagoenaren kasuan, tokiko erregimena arautzen duten arau orokorretan xedatutakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu eta hamabost egun igarota jarriko da indarrean.